



Andoaino Udala

Andoaino Udalak metalezko saretak jarri ditu plastikoak eta bestelako hondakinak ibaira irits ez daitezen

- **Oria eta Leitzarain ibaiei begira dauden eremuetan ezarriko den neurriaren helburua da kaleko hondakinak uretara ez erortzea.**

ANDOAIN 2022-07-24. Andoaino Udaleko Zerbitzu Saila ingurune hidraulikoaren eraginpean dauden herriko hainbat tokitan metalezko saretak jartzen hasi da. Sareok Santakruzeko zubian, espigoian eta Makaldegiko merkatu gunean (baserritarren estalkiaren ondoan) instalatuko dira lehentasunez. Jartzeko lehen lan hauek datorren asteartean amaituko dira eta, etorkizunean, puntu berriak aztertu ostean, instalazio gehiago egingo dira.

2022ko otsailean Andoaino Udala eta hura osatzen duten talde politiko guztiek "Andoaino Ituna" rekin bat egin zuten. Itun hori hondakinen kudeaketa eraginkorraren aldekoa da, eta herrian birziklatzea hobetzea eta ingurumenaren zaintza sustatzea du helburu. Neurri zehatz hau hartutako konpromisoen artean zegoen, hain zuzen ere.

Gizabidearen aurkako jokabide honek, hondakinak eta bereziki plastikoak lurrera botatzeak, alegia, arazo handiak eragiten ditu ibaietan eta itsasoan; izan ere, plastikoak eta mikroplastikoak nekez deskonposatzen dira, eta kalte handia eragiten dute ingurune hidraulikoko faunan eta floran. Erabaki horren bidez, herritarrak kontzientziatu nahi dira hondakinak dagokien edukiontzietan gaika sailkatzearen beharraz eta garrantziaz.

El Ayuntamiento de Andoain instala rejillas metálicas para evitar que los plásticos y otros residuos lleguen al río

- **La medida que se implementará en las zonas expuestas al río Oría y Leitzarain pretende que los residuos de la calle no caigan al río**

ANDOAIN 24-07-2022. El departamento de Servicios del Ayuntamiento de Andoain ha comenzado con la instalación de rejillas metálicas en diferentes puntos de la localidad expuestos al medio hidráulico. La malla de metal se instalará de forma prioritaria en el puente y el espigón de Santakruz, y en el mercado del Choperal (junto a la cubierta de los baserritarras). Las obras de colocación de la red finalizarán el próximo martes. En el futuro, se irán analizando e instalando en nuevos puntos.

En febrero de 2022, el Ayuntamiento de Andoain y todos sus grupos políticos se adherían al "Andoaino Ituna", un pacto a favor de una gestión de residuos eficiente, que persigue mejorar el reciclaje en el municipio y fomentar el cuidado del medio ambiente. Esta medida concreta figuraba entre los compromisos adquiridos.

Las conductas y actitudes incívicas de la gente, que tiran residuos y especialmente plásticos al suelo, provocan una problemática importante en los ríos y en el mar, ya que los plásticos y microplásticos difícilmente se descomponen, y producen una importante afección en la fauna y flora del medio hidráulico. Con esta decisión se pretende concienciar a la ciudadanía de la necesidad e importancia de depositar los residuos en los contenedores correspondientes, de forma selectiva.